

JOAN DEN EGUNeko IPUINA

Testua: ROBERTO ALIAGA

Irudiak: NOEMÍ VILLAMUZA

Itzulpena: UXUE REY GORRAIZ

Kartoi gogorrean egina. 22 x 22 cm. 32 orr. 13 €.

Joan den eguneko ipuina (euskara)

ISBN 978-84-9172-195-6. Autore liburuak. Lehen irakurleak.

El cuento del otro día (gaztelania)

ISBN 978-84-1343-023-2. Obras de autor. Primeros lectores.

O conto do outro dia (galegoa)

ISBN 978-84-1343-022-5. Demademora

El conte de l'altre dia (katalana)

ISBN 978-84-16804-94-8. Obres d'autor. Primers lectors.

-Aita, han zaude?

-Bai. Hemen nago, zure ondoan.

-Eta zergatik ez zaitut ia ikusten?

-Argia itzali dudalako...

«Joan den eguneko ipuina» seme-alabei zaien maitasun mugagabeaz mintzo da. Gauaz, lo hartu aurretik, gelaren iluntasunean izandako elkarrizketa samur baten bidez, irakurleari erakusten dio zeinen handia den hurrek helduengan eragiteko duten gaitasuna. Bi protagonisten arteko hitzek agerian uzten dute nola berreskuratu ditzakeen heldu batek, jadanik urrun duen haurtzarora itzuliko bailitzan, dagoeneko galduak zituen emozio eta fantasiak. Familia asko identifikaturik sentituko dira gaugiroko irudi honekin, etxeko txikiak loak noiz hartuko esperoan ematen diren une horiek gogora ekarrita.

Haurren ikuspuntuari so, aipatzekoa da helduaren babesaren bilaketa, gauari dion beldurra arintzeko. Isiltasunaren, bakardadearen, ezezagunaren aurrean, segurtasuna emango dion norbaiten premia. Alboan norbait izateak, ondokoaren gorputzak eta ahotsak betetzen dute haurrak sentitzen duen hutsunea. Era berean, islatuta daude haurren "zergatik?" etengabeak, inguruan duten munduari buruz dituzten zalantza horien guztien gaineko azalpenak baizik nahi ez dutenak. Galderaz gainezka du barrena, eta hala adierazten du, errepikapenaren bidez; zalantza eta babesgabatasuna atzean utziz, guztiz aldakorra eta zalantzazkoa den errealitate batean.

Helduei ipuinak kontatzeko eskatzeak arindu egiten ditu beldurrak. Lotarako istorioa maitekero kontatzen duenaren ahotsa ezinbestekoa da gurasoen eta haurren arteko harremanean. Bistan uzten du hori ezin duela ordezkatu gailu elektronikoko batek.

Metaliteraturako ariketa honetan, aitak ipuin bat kontatzen dio semeari. Istorioan, biek imajinatzen dute animaliak direla: kanguruak, arranoak, urtxintzak... Noemi Villamuzak ederki jantzi du istorioa kolore eta lerro leunez osatutako eszena ederrez. Saltoka eta hegaka aritzen dira. Jan, bainatu, elkar laztandu, eta jolasean aritzen dira; txikiena zirrarez betetzen duten gauza mordoa egiten dute. Zenbaitetan, ezin izaten dio eutsi istorioan sartzeko gogoari: ideiak botatzen ditu, galderak egin, zirrara adierazi, eta, ipuinak aurrera egin ahala, are sartuago dago istorioan. «Joan den eguneko ipuina» ez da beste deus, betiko ipuina baino: lasaitzen eta sendatzen duen horietakoa, amets zoriontsuetarako sarbidea.



■ **Gala:** guraso eta seme-alaben arteko harremana.

■ **Adin egokia:** 3 urtetik gora.

■ **Nabarmenezkoak:** haurtzarora, familia; gaua, beldurra, segurtasuna, ipuinaren ordua, irakurketa, ipuin-kontalaria, fantasia, afektuak, emozioak, animaliak; «¡A la luna, a las dos, y a las tres...!» ipuinaren egile berarena (Haurrentzako Nazioarteko "Ciudad de Orihuela" XII. Saria, Premio Saria 2020, Kalandraka).

■ **Liburuaren aurrerapena:**

<https://issuu.com/kalandraka.com/docs/joan-den-eguneko-ipuina-eusk>

Roberto Aliaga

(Argamasilla de Alba, Ciudad Real, 1976)

Biologian lizentziatua da eta, 2009az geroztik, haur eta gazte literaturan egiten du lan. Bere lanak 50 hizkuntza baino gehiagotara itzuli dira. Atzerriko hizkuntzetako lanen egokitzapenerako ere egin du lan, eta Haur eta Gazte Literaturari buruzko lantegi eta kongresuetan parte hartu izan du hainbatetan. Gainera, bisitak egin izan ditu ikastetxeetara, eta hizlari aritu da zenbait liburu-denda eta liburutegitan egindako topaketetan ere. Hainbat sari irabazi ditu, tartean, 2008ko Lazarillo, 2012ko Vila d'Ibi Narrazio Sariaketa eta 2017ko 'El Barco de Vapor'. Bere izena ageri da Gazteariaren Nazioarteko Liburutegiaren 2009ko The White Ravens zerrendan (Munich).



<http://roberto-aliaga.blogspot.com>

Noemí Villamuza

(Palentzia, 1971)

Arte Ederrak ikasi zituen Salamancako Unibertsitatean. 1998an, Bartzelonara iritsi berrikan, bere lehenbiziko lana argitaratu zuen. Ordutik, berrogei bat liburu ditu eginak zenbait herrialdetan. Ilustrazio ikastaroak ematen ditu Massana Eskolan. Junceda Saria jaso zuen 2007an, eta finalista izan zen 2002ko Ilustrazio Sari Nazionallean.

<http://www.noemivillamuza.com>



Kalandraka

www.

.com

www.



Pamiela .com
ETXEA

soltxate@pamiela.com

comunicacion@kalandraka.com